

auzo • auzo • auzo • auzo

intxaurrondo

Lanbide tailerrak martxan

Ikasketak gainditu gabe edota langabezian dauden gazteek ez dute hala-beharrez besoak gurutzaturik egon behar. Maria Auxiliadora ikastetxeak, lanbide tailerrak urtero jartzen ditu martxan, egoera horretan aurkitzen diren gazteentzat. Bertan parte hartzeko betebeharrak baka-rra, 16 urte izatea da eta Intxaurrondo edota inguru-ko gazteek parte hartzen dute tailer hauetan.

Lanbide mailan, mekanika, elektrizitatea, lora-zaintza eta arropa egitea dira ikastaro nagusiak. Musika, kirol edo ordena-gailuen inguruan ere antolatzen dira ikastaroak.

Urritik ekainera bitarteko tailer hauen asmoa, ikasketarik gabeko gazteei aukera bat ematea da, beste ikasketa batzuk jorra ditzaten edo lanbide bat ikas dezaten.



Ikastaroak dohainik izateak jende asko erakartzen du Boskozaleak-en egoitzara.

altza

Larratxoko trafiko arazoa oraindik ere konpontzeke dago eta badi-rudi luzarorako horrela izango dela, beraz, kotxearekin trebezia handirik ez dutenei, Txirrita bertsolaria ibilbidearen ordezkoko bidia har dezatela gomendatzen diegu.

Altzako liburutegiek ekintza berriak antolatu

dituzte datozen hilabeteetarako. Aurtengoan lehen aldiz, Larratxoko Haur Liburutegian eta Casares Kultur Etxean egingo diren Ilustrazio Tailerrak euskara hutsez egingo dira. Larratxon Idoia arituko da 7 urte bitarteko hurrekin asteazkencro 17.00etatik-18.30-etara, berriz, Casaresen Borja 7 urtetik gora dituzten hurrekin arituko da

astelehenero 17.30etatik-19.00etara.

Hurrengo hiru hilabeteetan ipuin kontalariak izango ditugu bi liburutegiotan. Casaresen Lamiak taldea ostegunero 18.00etatik-19.00etara eta Larratxon, Yolanda Arrieta ostiralero 18.00etatik 19.00etara arituko dira.

NAGORE IRASTORZA (TFNOA.: 285749)

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

GUREA, KALITATEA!

Madrid hiribidea, 4 - Tfnoa.: 47 15 21